BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA
BAO


II. ATALA

## BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Galdakaoko Udala

**Galdakaoko CR-10 exekuzio unitatearen 4. Partzelan eraikiko diren babes publikoko 31 etxebizitza zozketatzeko baldintzen plegua.**

2018ko ekainaren 18ko 671 Alkate Dekretu bidez, Galdakaoko CR-10 exekuzio unitatearen 4. Partzelan eraikiko diren babes publikoko 31 etxebizitza, garaje eta trastelekuen eskatzaileen zerrendak prestatzea eta ondoren zozketatzea arautzeko baldintzen plegua onetsi da.

Galdakaon, 2018ko ekainaren 19an.—Alkatea, Ibon Uribe Elorrieta

eek: BAO-2018a124-(II-2887)

GALDAKAOKO CR-10 EXEKUZIO UNITATEAREN 4. PARTZELAN ERAIKIKO DIREN BABES PUBLIKOKO 31 ETXEBIZITZA, GARAJE ETA TRASTELEKUEN ESKATZAILEEN ZERRENDAK PRESTATZEA ETA ONDOREN ZOZKETATZEA ARAUTZEKO BALDINTZEN PLEGUA

**1. Deialdiaren helburua**

Deialdi honen helburua da Galdakaoko udalerriko CR-10 exekuzio-unitatearen 4. partzelan eraikiko diren babes publikoko 31 etxebizitza, garajeak eta trastelekuak eskuratzeko zerrendak eta zozketaren parte-hartzeak prestatzeko baldintzak ezartzea.

Adjudikatu nahi diren 31 loteetako bakoitzak etxebizitza bat du, trastelekua eta garajearekin; lotea eskuratzeak etxebizitza eta lotutako eranskinak batera izango ditu, bereiztea ezinezkoa liratekeelarik.

**2. Jabetza araubidea eta prezioa**

Etxebizitzak, garajeak eta trastelekuak jabetza-araubidean transmitituak izango dira. Etxebizitzen, garajeen eta trasteleku erantsien salmenta-prezioa, behin-behineko kalifikazioaren momentuan etxebizitzei aplikatu ahal zaien gehienezko prezioa izango da, aplikatu beharreko araudi autonomikoaren arabera. Prezio honi dagokion BEZa erantsi beharko zaio.

Zozketatu beharreko loteen deskribapena ondokoa izango da:

— 2 etxebizitza egokituta.

— 29 etxebizitza egokitu gabeak.

**3. Babes publikoko etxebizitza baten onuraduna izateko baldintzak**

Deialdi honen babes publikoko etxebizitzen adjudikazioduna izan ahal izateko, 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzari buruzkoan, eta martxoaren 4ko 39/2008 Dekretua, babes publikoko etxebizitzen eta etxebizitza arloko finantza-neurrien araubide juridikoari buruzkoan ezarritako eskakizunak, hala nola, Galdakaoko udalak ezarrita dituen lotura-eskakizunak bete beharko dira, hau da:

— Adin nagusikoa eta legez emantzipatua egotea.

— Eskatzailea edo titular-kideetako bat Galdakaoko udalerrian erroldaturik egotea, eta gutxienez etengabe bost urteko antzinatasunaz egotea edo gutxienez hamar urte aurreko hamabien barruan, beti ere inskripzio-eskabidearen data aurreko hamabi hilabeteetan Galdakaoko udalerrian erroldaturik egon bada. Galdakaori lotutako bizikidetza-unitateen aldetik etxebizitza guztiak adjudikatu ez badira, gutxienez, etxebizitzaren titular izango denetako bat, gutxienez, Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egon beharko da.

— Etxebizitzaren beharrizana izatea Euskal Autonomia Erkidegoan babes publikoko etxebizitza arloan indarrean dagoen legeriak ezarritakoaren arabera, baldintza hori bizikidetza-unitateko kide guztiek bete beharko dutelarik.

— Babes publikoko etxebizitzen arloan aplikatu beharreko araudi autonomikoak ezartzen dituen sartzeko eskakizun ekonomikoak betetzea. Honi buruz, urteko diru-sarrera haztatuak egiaztatu beharko ditu, 9.000,00 eurotik gorakoak, eta 39.000,00 eurotik beherakoak. Mugikortasun murriztu iraunkorreko ahalmen-urritasuna dutenen kasuan, nahikoa izango da 3.000,00 euroko gutxieneko diru-sarrerak egiaztatzea. Eskuratzeko kontratuaren sinadurari legez dagokion ekitaldian dituen urteko diru-sarrerak izango dira kontuan.

— Aurreko bi urteetan babes publikoko beste etxebizitza baten adjudikazioduna ez izatea.

**4. Eskabide eredua**

Eskabide eredua udal-bulegoetan eskuragarri egongo da interesdunentzat.

Pertsona fisiko edo bizikidetza-unitate bakoitzeko eskabide bakarra onartuko da eta, bat baino gehiago aurkeztuko balitz, lehenengoa soilik onartuko da, salbuetsita bat indi-

eek: BAO-2018a124-(II-2887)

biduala eta beste batera egindakoa dela, kasu horretan batera aurkeztutakoa kontuan hartuko delarik.

**5. Eskabideak aurkezteko lekua eta epea**

Eskabideak Galdakaoko udalaren bulegoetan aurkeztu beharko dira, dagokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu den biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Etxebizitza eskatzaileek eskabidean kontsignatutako datuetan izandako edozein aldaketa Galdakaoko udalari jakinarazi behar diote, gorabehera hori izan denetik gehienez hamabost (15) eguneko epean. Aipatutako aldaketak komunikatzen ezean, eskabidea ezetsi daiteke.

**6. Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Onartua izateko eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko, eskabidearekin batera ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko da:

1. Eskabidearen inprimakia behar bezala beteta.
2. Eskatzailearen NANaren fotokopia eta, bere kasuan, ezkontidearen edo izatezko bikotearena.
3. Udal errolda-ziurtagiria
4. Etxebizitzarik ez izatea. Etxebizitza ez izatearen baldintzak betetzeari buruzko egiaztagiria eskatuko da kontratuaren bisaturako. Erregistroan inskripzioa egiteko, hori dela eta egindako zinpeko adierazpena nahikoa izango da.

Edozein kasutan, udalak eskatzaile bakoitzari egokitzat jotzen duen dokumentazio osagarria eska diezaioke, eskakizunak justifikatzeko helburuarekin.

**7. Informazioa**

Prozedura honi dagokion informazio guztia, Galdakaoko udalaren iragarki-taulan eta web-orrian (www.galdakao.eus) argitaratuko da.

**8. Eskatzaileen behin-behineko zerrenda eta erreklamazioak**

Galdakaoko udalak, eskabideetan jasotako inguruabarrak egiazkoak direla egiaztatu ondoren, plegu hauetan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten izangaien behin-behineko zerrenda prestatuko du.

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak egin ondoren, iragarki-taulan eta udalaren web-orrian jarriko dira ikusgai, hamar (10) egun balioduneko epean, interesdun guztiek erreklamazioak egin ditzaten, hala nola, bere kasuan, eskatzen zaion dokumentazio osagarria aurkez dezaten.

**9. Behin betiko zerrendak eta etxebizitzen zerrendak**

Erreklamazioak ebatzi ondoren, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak argitaratuko dira, bere kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziz, iragarki-taulan eta udalaren web-orrian.

Behin betiko ebazpenaren aurka berraztertzeko errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean.

Parte-hartzaileak behin betiko zerrendan agertzeak ez du esan nahi eskatutako baldintzak betetzen direnik. Eskakizun guztiak salerosketako kontratu pribatua bisatzen den momentuan betetzen diren egiaztatuko da.

**10. Zozketa eta adjudikazioa**

Talde bakoitzak daukan etxebizitzen lehentasun-eskubidearen adjudikaziodunak hautatzeko, zozketa bidez egingo da Notarioaren aurrean, egintza publikoan, Galdakaoko Udalak adierazi behar duen datan eta lekuan, babes publikoko etxebizitzen behin-behineko kalifikazioa eman ondoren.

eek: BAO-2018a124-(II-2887)

Zozketarako zenbakiak: Eskatzaile bat bakarrak lortuko du zozketarako zenbaki bat, bizikidetza-unitate bezala aurkezten baldira BI zenbaki lortuko dituzte zozketarako. Zozketarako zenbakiak ausaz esleituko dira.

Lehenengo adjudikaziodunak talde bakoitzaren barruan duen etxebizitza-eskubidea zozketatuko da, eta lehenengo adjudikazioduna izendatu ondoren, hurrengo adjudikaziodunak zerrendaren hurrenkera korrelatiboan izango dira, etxebizitza guztiak lehentasunez eskuratzeko eskubidea adjudikatzen den arte.

Mugikortasun urri iraunkorra duten minusbaliatuentzako etxebizitzekin hasiko da zozketa. Etxebizitza hauek adjudikatu gabe geratuko balira, kupo orokorrean adjudikagarriak dauden etxebizitza-kopurua osatuko dute, aurretiaz Lurralde Etxebizitza sailak baimena eman ondoren.

Ondoren, kupo orokorrerako etxebizitzen lehenengo adjudikaziodunarekin hasiko da, zozketa bidez hautatuz, hurrengo adjudikaziodunak zerrendaren hurrenkera korrelatiboan izango dira etxebizitza guztiak adjudikatu arte.

Etxebizitzen adjudikazioa bostgarren solairutik hasiko da, Nafarroa kaleko 6 zenbakidun ataritik (oinarrizko proiektuan ESC 2), segidan atarte berdineko laugarren solairuarekin jarraituz, eta ondoren Nafarroa kalea 4. atariaren (oinarrizko proiektuan ESC 1) laugarren solairua banatuz. Hirugarren solairuko etxebizitzak zozketatuko dira ondoren, lehenik 6. ataria eta gero 4. ataria; bigarren eta lehen solairuekin, era berean, elkarren segidan zozketatuko dira, beti solairu bakoitzeko A letradun etxebizitzatik hasiko delarik.

Bizikidetza-unitate bati bi etxebizitzaren adjudikatzen bazaizkio, bizikidetza-unitate horrek adjudikatutako etxebizitza bakarrean soilik izango du lehentasuna eskuratzeko eskubideari dagokionean.

### 11. Adjudikaziodunen behin-behineko zerrenda eta itxaron zerrenda

Adjudikaziodunen behin-behineko zerrendak eta itxaron zerrenda, Galdakaoko udalaren iragarki-taulan eta web-orrian argitaratuko dira.

Edozein zerrendatan daudenek erreklamazioak egin ahal izango dituzte horien aurrean, argitaratu den biharamunetik hasita hiru (3) egun balioduneko epean.

### 12. Behin betiko zerrendak eta adjudikatzeko prozesua

Epea amaitutakoan erreklamaziorik aurkeztu ez bada edo, bere kasuan, ebatzi badira, Galdakaoko udalak erabakia hartuko du zerrenda behin betikoa bihurtu eta etxebizitzak adjudikatuz.

Era berean, Galdakaoko udalak adjudikaziodunen zerrenda jakinaraziko dio Notarioari.

Etxebizitza eta eranskinak behin betiko adjudikatuta, adjudikaziodunak, arrazoiren bat tarteko, uko egingo balio adjudikazioari, adjudikaziodun berriak izendatuko dira itxaron zerrendaren hurrenkerari zorrotz jarraituz.

Behin etxebizitzaren adjudikazioa eginik, sustatzailea adjudikaziodunarekin jarriko da harremanetan, hautetsia izan zaion etxebizitza jakinarazteko, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 65 artikuluarekin bat, 2012ko urriaren 31, asteazkenean argitaratua, Kontratuaren baldintzak eta sustapenari dagokion beste edozein argibide azaltzeko.

Hitzordura aurkezten ez den eskatzailea, adjudikaturiko etxebizitzari uko egiten diola ulertuko da; zerrendako hurrengo eskatzailera pasatuz.

Etxebizitzaren onarpena, sustatzaileak aurrez ezarritako hitzorduan egin beharko da, erabakia beste data batera atzeratu ezinik.

Behin onarturik, adjudikaziodunak 15 eguneko epea izango du kontratua formalizatzeko, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 65 eta 66 artikuluekin bat, 2012ko urriaren 31, asteazkenean argitaratua.

Etxebizitza eskaintzeko prozesua behar den bestetan egingo da, harik eta etxebizitza guztiak adjudikatu diren arte, beti ere hurrenkera errespetatuz.

eek: BAO-2018a124-(II-2887)

Galdakaoko udala, zozketa egin eta adjudikaziodunen eta ordezkoen behin betiko zerrendak prestatu ondoren, bestelako betebeharrik egitez liberatuta geratzen da, eroslearen eta enpresa sustatzailearen artean ez etxebizitzen salerosketa dela eta ezartzen erlazio pribatuetatik eratorritako ondoriorik ezta eraikuntzatik eta akaberatik erator daitezkeenak bere gain hartu gabe.

**13. Behin betiko adjudikazioaren ondoko betebeharrak**

Salerosketako eskriturak sinatu ondoren, adjudikaziodunen etxebizitza ohikoa eta iraunkorra izan beharko da bizilekurako, eskriturak sinatzen direnetik hasita sei (6) hilabeteko epean aipatutako etxebizitzara lekuz aldatu eta bertan erroldatu beharko direlarik.

2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren Laugarren Xedapen Gehigarrian berariaz araututakoaren arabera, edozein etxebizitza babestuk duen interes sozialagatik, etxebizitza desjabetzeko zioa izan daiteke, urte batetik gora etengabe bizitegirako erabili gabe badago bidezko arrazoirik gabe, hala nola, titularraren bizilekurako ez den bestelako helburuetarako erabiltzen direnean, Galdakaoko udalak eman beharreko baimenik izan gabe.

Adjudikatu diren babes publikoko etxebizitzak ezin izango dira laga ez errentan ez prekarioan.

**14. Etxebizitzen salmenta. Erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea**

3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzari buruzkoaren 64. artikuluan ezarritakoaren arabera, babes publikoaren edozein araubidera bildutako etxebizitzak erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak egikaritzari lotuta egongo dira, 3/2015 Lege horretan ezarritakoaren arabera eta bertan aurreikusitako prozedurari jarraiki.

**15. Baldintzak betetzen ez badira**

Adjudikaziodunek indarrean dagoen legeria, babes sozialeko etxebizitzei dagokienean, eta plegu honetan ezarritako baldintzak, hala nola kontratuko dokumentuetan sinatutako gainerako baldintzak betetzen ez badituzte, etxebizitzaren adjudikazioa hutsalduko da.

**16. Datuen babesa**

Adjudikatzeko prozesuan eskatzaileek aurkeztutako datu pertsonalei, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa) ezarrikoa eta gainerako aplikatzeko araudia aplikatuko zaizkie.

**17. Araubide juridikoa**

Baldintza-plegu honetan esplizituki aurreikusi ez diren egoera guztietarako, babes publikoko etxebizitzei buruzko erkidegoaren araudian araututakoa errespetatuko da.

eek: BAO-2018a124-(II-2887)

SECCIÓN II

## ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA

### Ayuntamiento de Galdakao

**Pliego de condiciones para el sorteo de 31 viviendas de protección pública en la parcela 4 de la unidad de ejecución CR-10 de Galdakao.**

Mediante Decreto de Alcaldía número 671, de fecha 18 de junio de 2018, se ha procedido a la aprobación del pliego de condiciones para la regularización de la elaboración de las listas de demandantes y posterior sorteo de 31 viviendas de protección pública, garajes y trasteros que se construirán en la parcela 4 de la unidad de ejecución CR-10 de Galdakao.

En Galdakao, a 19 de junio de 2018.—El Alcalde, Ibon Uribe Elorrieta

cve: BOB-2018a124-(II-2887)

**PLIEGO DE CONDICIONES PARA LA REGULACIÓN DE LA ELABORACIÓN DE LAS LISTAS DE DEMANDANTES Y POSTERIOR SORTEO DE 31 VIVIENDAS DE PROTECCIÓN PÚBLICA, GARAJES Y TRASTEROS QUE SE CONSTRUIRÁN EN LA PARCELA 4 DE LA UNIDAD DE EJECUCIÓN CR-10 DE GALDAKAO**

## 1. Objeto de la convocatoria

La presente convocatoria tiene por objeto establecer las condiciones para la elaboración de las listas y participaciones del sorteo para la adquisición de 31 lotes de viviendas de protección pública, que se construirán en la parcela 4 de la unidad de ejecución CR-10 del municipio de Galdakao.

Cada uno de los 31 lotes que se propone adjudicar está compuesto por una vivienda con su trastero y garaje vinculado, de forma que la adquisición del lote conllevará, tanto la de la vivienda como la de los anejos vinculados, siendo imposible su transmisión por separado.

## 2. Régimen de propiedad y precio

Las viviendas, garajes y trasteros serán transmitidos en régimen de propiedad. El precio de venta de las viviendas de protección social, sus garajes y trasteros vinculados será el precio máximo aplicable a las viviendas en el momento de su calificación provisional, según la normativa autonómica de aplicación. A este precio se le deberá añadir el IVA correspondiente.

La descripción de los lotes a sortear es la siguiente:

— 2 viviendas adaptadas.

— 29 viviendas no adaptadas.

## 3. Condiciones para ser beneficiario de una vivienda de protección pública

Para poder ser adjudicatario/a de las viviendas de protección pública objeto de esta convocatoria, deberán cumplirse los requisitos establecidos en la Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda y en el Decreto 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen jurídico de las viviendas de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, así como los requisitos de vinculación al municipio establecidos por el Ayuntamiento de Galdakao, es decir:

— Ser mayor de edad o emancipado/a legalmente.

— Hallarse empadronado/a en el municipio de Galdakao la personan solicitante o uno de los cotitulares durante un mínimo de 5 años ininterrumpidos o diez años dentro de los doce anteriores, siempre que durante los doce meses anteriores a la fecha de inscripción en el Registro Municipal de demandantes creado para este sorteo, haya estado empadronado/a en Galdakao. En el supuesto de no adjudicarse la totalidad de las viviendas por unidades convivenciales vinculadas a Galdakao, deberá estar empadronado/a en el País Vasco, por lo menos, uno/a de los futuros titulares de la vivienda.

— Tener necesidad de vivienda, conforme a lo establecido por la legislación vigente en el País Vasco en materia de vivienda de protección pública. Dicho requisito deberá ser cumplido por todos los miembros de la unidad convivencial.

— Cumplir los requisitos económicos de acceso establecidos por la normativa autonómica de aplicación en materia de vivienda de protección pública. A este respecto, se deberá acreditar unos ingresos ponderados anuales, no inferiores a 9.000,00 euros, y no superiores a 39.000,00 euros. En el caso de personas discapacitadas con movilidad reducida permanente, bastará con acreditar unos ingresos mínimos de 3.000,00 euros. Se tendrán en cuenta los ingresos anuales en el ejercicio que legalmente corresponda a la firma del contrato de adquisición.

— No haber sido adjudicatario de otra vivienda de protección pública en los dos años anteriores.

cve: BOB-2018a124-(II-2887)

**4. Modelo de solicitud**

El modelo de solicitud se encontrará a disposición de las personas interesadas en las oficinas municipales.

Sólo será admitida una única solicitud por persona física o unidad convivencial, y en el caso de que se presentara más de una, únicamente será admitida la primera presentada, excepto en el caso de que una de ellas sea individual y otra conjunta, en cuyo caso se tendrá por presentada la conjunta.

**5. Lugar y plazo para presentación de solicitudes**

Las solicitudes deberán presentarse en las oficinas del Ayuntamiento de Galdakao, dentro del plazo de 1 mes, a contar desde el día siguiente a la publicación del correspondiente anuncio en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Las personas solicitantes de vivienda, tendrán la obligación de comunicar al Ayuntamiento de Galdakao cualquier modificación de los datos consignados en la solicitud, en el plazo máximo de quince (15) días hábiles desde que se produzca dicha circunstancia. La falta de comunicación de las aludidas modificaciones podrá dar lugar a la desestimación de la solicitud.

**6. Documentación a aportar**

Para acreditar que se cumplen los requisitos para ser admitido/a, junto con la solicitud se deberá presentar la siguiente documentación:

1. Impreso de solicitud debidamente cumplimentado.
2. Fotocopia del DNI del solicitante, y en su caso, del cónyuge o pareja de hecho.
3. Certificado municipal de empadronamiento.
4. Carencia de vivienda. La documentación acreditativa de cumplir las condiciones de carencia de vivienda se solicitará para el visado del contrato. Para la inscripción en el Registro, será suficiente con una declaración jurada en ese sentido.

En cualquier caso, el Ayuntamiento podrá requerir a cada solicitante aquella documentación complementaria que considere oportuna, a fin de justificar los requisitos exigidos.

**7. Información**

Toda la información concerniente al presente procedimiento, se publicará en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Galdakao y en su página web (www.galdakao.eus).

**8. Lista provisional de solicitantes y reclamaciones**

El Ayuntamiento de Galdakao, practicadas las comprobaciones oportunas sobre la veracidad de las circunstancias recogidas en las solicitudes, procederá a elaborar una lista provisional de las personas candidatas que cumplen los requisitos establecidos en los presentes pliegos.

Una vez elaboradas las listas provisionales de personas admitidas y excluidas, estas serán expuestas en el tablón de anuncios y en la página web del Ayuntamiento, para que en el plazo de diez (10) días hábiles, todas las personas interesadas puedan formular reclamaciones, así como para aportar la documentación complementaria que en su caso le sea requerida.

**9. Listas definitivas y listas de las viviendas**

Tras la resolución de las reclamaciones, se publicarán las listas definitivas de las personas aceptadas y excluidas, indicando en su caso el motivo de la exclusión, en el tablón de anuncios y página web del Ayuntamiento.

Contra la resolución definitiva se podrá interponer recurso de reposición, o bien recurso contencioso-administrativo, si procede, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Bilbao.

cve: BOB-2018a124-(II-2887)

El que los participantes aparezcan en la lista definitiva no significa que cumplan las condiciones requeridas. Se comprobará que cumplen todos los requisitos en el momento de visado del correspondiente contrato privado de compraventa, a realizar por el Gobierno Vasco.

**10. Sorteo y adjudicación**

La selección de las personas adjudicatarias del derecho preferente de acceso a las viviendas de los respectivos grupos, se realizará mediante sorteo efectuado ante Notario, en acto público, en la fecha y lugar a señalar por el Ayuntamiento de Galdakao, una vez otorgada la calificación provisional de viviendas de protección pública.

Números para el sorteo: Un único solicitante obtendrá un número para el sorteo. Si se presentan como unidad convivencial obtendrán dos números para el sorteo. Los números para el sorteo se asignarán de forma aleatoria.

Se procederá al sorteo de una primera persona adjudicataria del derecho de viviendas dentro de cada grupo, y una vez asignado el primer adjudicatario/a, los siguientes adjudicatarios serán en orden correlativo del listado, hasta que se adjudique el derecho de adquisición preferente de todas las viviendas.

El sorteo dará comienzo con las viviendas destinadas a personas discapacitadas con movilidad reducida permanente. Si estas viviendas quedasen sin adjudicar, podrán pasar a formar parte del número de viviendas adjudicables en el cupo general, previa autorización del departamento de Vivienda Territorial.

A continuación se procederá al primer adjudicatario de las viviendas destinadas al cupo general, seleccionando por sorteo; los siguientes adjudicatarios serán en orden correlativo del listado hasta que se adjudiquen todas las viviendas.

Las viviendas se adjudicarán comenzando por la quinta planta del portal 6 de la calle Nafarroa (en el proyecto básico ESC 2), siguiendo con la cuarta planta del mismo portal pasando posteriormente a la cuarta planta del portal 4 de la calle Nafarroa (ESC 1 en el proyecto básico), volviendo de nuevo a la tercera planta del portal 6, tercera planta del portal 4 y segundas y primeras plantas de ambos portales sucesivamente, siempre comenzando por la letra A de cada planta.

En el supuesto de que una unidad convivencial resulte adjudicataria de dos viviendas, la unidad convivencial sólo tendrá derecho de adquisición preferente sobre una vivienda adjudicada, y será la primera que haya sido adjudicada.

**11. Lista provisional de adjudicatarios/as y lista de espera**

Las listas provisionales de las personas adjudicatarias y la lista de espera, se publicarán en el tablón de anuncios y en la página web del Ayuntamiento de Galdakao.

Aquellas personas que figuren en cualquiera de las listas podrán realizar reclamaciones frente a la misma en el plazo de tres (3) días hábiles, a contar desde el día siguiente al de su publicación.

**12. Listas definitivas y proceso de adjudicación**

Transcurrido el plazo sin que se hayan presentado reclamaciones, o en su caso, resueltas las mismas, el Ayuntamiento de Galdakao adoptará acuerdo elevando la lista a definitiva, procediendo a la adjudicación de las viviendas.

Asimismo, el Ayuntamiento de Galdakao notificará al Notario el listado de las personas adjudicatarias.

En el caso de que, una vez adjudicada definitivamente la vivienda y sus anejos, la persona adjudicataria renunciara por cualquier motivo a la adquisición de la misma, se designarán nuevos adjudicatarios/as por riguroso orden de lista de espera.

Una vez realizada la adjudicación de la vivienda, el Promotor se pondrá en contacto con los adjudicatarios para informarles de la vivienda que les ha sido adjudicada de acuerdo con el Artículos 65 de la Orden de 15 de octubre de 2012, publicada el miérco-

cve: BOB-2018a124-(II-2887)

les 31 de octubre de 2012, condiciones del contrato y cualquier otra aclaración sobre la promoción.

Se entenderá que los solicitantes que no acuden a la cita renuncian a la vivienda adjudicada, pasando al siguiente solicitante de la lista.

La aceptación de la vivienda se realizará en el momento de ser citado por la promotora, no pudiendo trasladar la decisión a una fecha posterior.

Una vez aceptada, el adjudicatario tendrá un plazo de 15 días para la formalización del contrato de acuerdo con los Artículos 65 y 66 de la Orden de 15 de octubre de 2012, publicada el miércoles 31 de octubre de 2012.

El proceso de oferta de la vivienda se realizará tantas veces como fuera necesario hasta la adjudicación de la totalidad de las viviendas, respetando siempre el orden de prelación.

El Ayuntamiento de Galdakao, una vez realizado el sorteo y elaboradas las listas definitivas de adjudicatarios/as y suplentes, queda liberado de cualquier otra obligación, no respondiendo ni de las consecuencias derivadas de las relaciones privadas que se establezcan entre el comprador y la empresa promotora, ni con motivo de la compraventa de las viviendas, ni las que pudieran derivar de la construcción y acabado de las mismas.

**13. Obligaciones posteriores a la adjudicación definitiva**

Una vez firmadas las escrituras de compraventa, la vivienda deberá destinarse a domicilio habitual y permanente de las personas adjudicatarias, debiéndose realizar el traslado y el empadronamiento en la citada vivienda en el plazo de seis (6) meses, a contar desde la firma de las escrituras.

Según los expresamente regulado en la Disposición Adicional Cuarta de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, por el interés social que despierta cualquier tipo de vivienda protegida, podrá ser motivo de expropiación de la vivienda, cuando sin causa justificada permanezca sin uso residencial por más de un año ininterrumpido, así como cuando se utilicen para fines distintos del de domicilio del titular, sin contar con la autorización pertinente del Ayuntamiento de Galdakao.

Las viviendas de protección pública que hayan sido adjudicadas, no podrán ser cedidas en arrendamiento ni en precario.

**14. Venta de las viviendas. Derecho de tanteo y retracto**

En función de lo establecido en el artículo 64 de la Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda, las viviendas acogidas a cualquier régimen de protección pública, estarán sujetas al ejercicio de los derechos de tanteo y retracto, en la forma establecida y siguiendo el procedimiento previsto en la citada Ley 3/2015.

**15. Incumplimiento de condiciones**

El incumplimiento por parte de las personas adjudicatarias de la legislación vigente en materia de viviendas de protección social y de las condiciones establecidas en los presentes pliegos, así como del resto de condiciones que se suscriban en los correspondientes documentos contractuales, dará lugar a la rescisión de la adjudicación de la vivienda.

**16. Protección de datos**

A los datos de carácter personal aportados por las personas solicitantes durante el proceso de adjudicación les será de aplicación lo establecido en el Reglamento General de Protección de Datos (Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016) y demás normativa de aplicación.

**17. Régimen jurídico**

En todas las situaciones que no se hayan previsto explícitamente en este pliego de condiciones, se respetará lo regulado en la normativa autonómica de viviendas de protección pública.

cve: BOB-2018a124-(II-2887)